

2025ko Artzai Egunaren programa

Nafarroako interes turistikoko festa



Irakurketa Errazean




Zer da Artzai Eguna?

Artzainei eskainitako jaia da.
Aurten Artzai Egunak
57 urte betezen ditu.

Non da Artzai Eguna?

Uharte Arakilen.
Arakil haranean dagoen
herri bat da.



Noiz da Artzai Eguna?

2025eko abuztuaren 31an,
igandean.



Reyno de
Navarra



Nafarroa_{ko}
Erresuma

www.visitnavarra.es

Robeto Jaca Navaroren agurra eta ongietorria

Roberto Aralar Mendi Elkarteko lehendakaria da.


Uharte Arakilgo Artzai Eguna ospakizun enblematikoa da, eta hartan artzainen lana eta lehen sektorearen aberastasuna balioesten dira. Egun horretan, beren biziartza artzaintzan eman dutenen ahalegina aitortzen da. Artzaintza antzinako lanbide bat da, eskualdeko paisaia, kultura eta ekonomia modelatu dituen.

Baina artzaintza ez da jarduera ekonomikoa soilik, lurraldearen nortasuna bizirik mantentzen duen bizimodua baizik. Ardi-hazkuntza eta gazta-ekoizpena, Idiazabal eta Erronkari gazta ospetsuen kasua, gastronomiaren eta landa-iraunkortasunaren funtsezko zutabeak dira. Gainera, transhumantziak eta aziendaren ustiapen estentsiboak ingurumena eta biodibertsitatea babesten laguntzen dute.

Artzai Egunean artzainak eta bisitariak elkartzen dira Uhartan, eta izugarri gozatzen dute artzain-txakurren lehiaketak eta eskileo-erakustaldiak ikusiz eta bertako produktuak dastatuz. Egun horretan tradizioak eta berrikuntzak bat egiten dute, eta lehen sektoreak ekonomian eta landa-garapenean duen garrantzia aldarrikatzen da. Artzaintza babestea eta sustatzea funtsezkoa da etorkizun iraunkorra bermatzeko, belaunaldi berriek mantendu ahal izan dezaten mendeetan zehar lur horiek zaindu dituztenek utzitako ondarea.

Bizitza luzea opa diogu artzaintzari eta Artzai Egunari!

Roberto Jaca Navarro (Aralar Mendi Elkarteko Lehendakaria)



Artzai Egunaren programa

2025eko abuztuak 31

Goizean

Goizeko 10etan

Irekiera ekitaldia.

Epaimahaiaren osaketa,

hau da, lehiaketa ezberdinen
epaimahaiaren pertsonak aurkeztuko dira.



10 eta erdietatik
eguerdiko ordu 1etara

Nafarroako **ardi latxen erakusketa** eta
lehiaketa
San Juan Plazan.

Latxa arrazako **ardien estatuko lehiaketa**



10 eta erdietatik
eguerdiko 1 eta erdietara

Nafarroako ardi latxen esne gordinarekin
egindako **gazta-lehiaketa**
elizako atrioan.

Gazta feria eta artisautza feria

Felipe Gorriti Kalean
eta San Juan Plazan



11etatik
eguerdiko 1etara

Ardi-moztaileen txapelketa

estali gabeko pilotalekuan.
Ardi-moztaileak ardiari artilea kentzen dieten
pertsonak dira.



11etatik
eguerdiko 2etara

Artzain txakurren erakusketa

San Juan Plazan.



11 eta erdietan

Artaldea herritik pasako da.



12ak laurden gutxitan

Ardiki gisatuaren dastaketa

Del Rio kaleko 22garren zenbakian
Mendinueta harategiaren aurrean dagoena.
Erreka Kaleko 22. zenbakian.

Ardi gazta freskoa dastatzeko aukera

Del Rio kalean,
elizaren aurrean egongo da.



Eguerdiko 1etan

Lanbide honetan hasten diren
artzain gazteei **omenaldia**
elizako atrioan.



**Eguerdiko
1 eta erdietan**

Lehiaketen **sari banaketa**
elizako atrioan.



Gazta irabazlearen **enkantea**
elizako atrioan.
Honek esan nahi du nahi duenak
gaztarengatik zenbat ordaindu nahi duen
esango duela
eta diru gehien eskaintzen duen pertsonak
gazta eramango duela.

Arratsaldean

Arratsaldeko 5etan

Nafarroako artzain-txakurren txapelketa

Uharte Arakileko Gainbera larrean.
Lehiaketa hau duela 56 urte egiten dela.

Txakur irabazleak Oñatiko eta Euskal Herriko
txapelketa internacionalera pasako dira.



Uharte Arakileko mapa

Mapa honetan ekintza bakoitza non izango den ikus dezakezu.



Informazio gehiago behar duzu?



Informazio gehiago eskuratzeko
aukera hauen artean hautatu dezakezu:



Sartu jardueraren web orrialdean.

Klikatu esteka honetan www.artzaieguna.eus
edo eskaneatu zure telefonoarekin QR kodigo hau.



www.artzaieguna.eus



Idatzi mezu elektroniko bat
info@artzaieguna.eus helbidera.



Joan Aralar Mendi Elkartean dagoen
informazio puntura.

Aralar Mendi Elkartea

Donibane Plazan dago, 3. zenbakian



Informazio puntua

Aralar Mendi Elkartean.



Deitu telefonoz Aralar Mendi elka
Telefono zenbakia 948 46 40 11

Komunak.

Artzai Egunaren antolatzailea



DYA.

Kolaboratzaileak



Nafarroako Gobernua
Landa Garapeneko, Ingurumeneko
eta Toki Administrazioako Departamentua



Gobierno de Navarra
Departamento de Desarrollo Rural,
Medio Ambiente y Administración Local



artzaieguna



artzaiegunauhartearakil